

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Garmendia Etxenike

*Donostia,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Parisen jaioa, familia euskaldun batean: aita Pasaiakoa zuen, gerrako errefuxiatua, eta ama Uztaritzekoa, bertara erizain ikasketak egitera joandakoa. Hiru ahizpatan zaharrena zen Miren. Parisen egin zituen ikasketak, eta irakasle moduan hasi zen lanean. Parisko Euskal Etxearen bitartez, harremana zuten Euskal Herriarekin, eta euskara ikastera etorri zen uda batzuetan. 1971an Donostiara joan zen bizitzera, eta Lizeo Frantsesean egin zuen lan 25 urtean. Mugimendu feministan militatu zuen 1976tik 1982ra, bereziki EEB Euskal Emakumeak Borrokan taldean. San Telmo museoan egindako elkarriketa.

Zintak

DON-203

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-05-06
- **Iraupena:** 165 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Parisen jaioa, baina gurasoak euskaldunak

- **Erref:** DON-203/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Parisen jaioa, guraso biak euskaldunak zituen: aita Pasaiakoa zen eta gerra sasoian Baionara joan zen; Eresoinka taldearekin joan zen Parisera.

2. Eresoinka, euskal errefuxiatuen kultur enbaxada

- **Erref:** DON-203/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Eresoinka zer zen azaltzen du, Euskal Herriko kultur enbaxada, errefuxiatutako musikariz eta dantzariz osatua. Gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak. Taldea desegin zenean, batzuek Mexikora eta Venezuelara joan ziren.

3. Eresoinka II

- **Erref:** DON-203/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Eresoinkakoak Saran egon ziren 1937an, eta Baionatik Parisera joan ziren gero. Abestiak eta dantzak eskaintzen zituzten. Beste herrialde batzuetara ere joan ziren.

4. Gurasoek nolatan ezagutu zuten elkar

- **Erref:** DON-203/005
- **Iraupena:** 0:07:11. **Hasi:** 00:09:23. **Bukatu:** 00:16:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Parisen aita emaztea izango zuena ezagutu zuen, eta horregatik geratu zen bertan. Aita arotza zen. Ama Uztarritzekoa zen; 16 urtetatik umezain ibili zen lanean, uztaritzen bertan, Parisen eta Donibane Lohitzunen, eta gero Parisera joan zen erizain ikasketak egitera. Lagun bat zeukan Eresoinkan, Bergarako Anita Azkarate, eta bisitan joaten zitzaion.

5. Etxeko hizkuntza: frantsesa

- **Erref:** DON-203/006
- **Iraupena:** 0:05:28. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hiru ahizpatan zaharrena da. Etxean frantsesez egiten zuten. Amak bazekien euskaraz, baina erabaki zuten etxean frantsesez egitea aitzak ikasi zezan. Urte haietan elebitasuna ez zegoen ongi ikusia, 1950-60 urterarte. Ez zuten euskararik eta gaztelanirik ikasi umetan. 22 urterekin hasi zen euskara ikasten. Kantu asko zekizkien euskaraz, ulertu gabe.

6. Ikastetxean ingelesa eta alemana ikasi zituen

- **Erref:** DON-203/007
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:22:02. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Paris erdialdean bizi ziren, 25 metro karratuko etxe batean. Eskola publikoan ibili zen. Ikastetxean ingelesa eta alemana ikasi zituen; orduko eskutitz-lagun batzuk mantendu ditu.

7. 1968ko maiatza Parisen

- **Erref:** DON-203/008
- **Iraupena:** 0:06:39. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Unibertsitatean hasi zenean, 1968ko maiatzeko protestak hasi ziren, eta klaserik gabe egon ziren hilabete batzuetan. Garraio publikoa geratu egin zen, eta oinez joaten ziren toki guztietara: manifestazioak, asanbladak... herritarren arteko harremana aldatu egin zen: elkarri zuka hitz egiten hasi ziren.

8. 1968ko maiatza Parisen II

- **Erref:** DON-203/009
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:36:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Nanterreko ikasleek 1967an aldarrikatzen zutena: mutilek neskak bisitatu ahal

izatea, nesken ikasle-egoitzetan. Ikasketa-sistema aldatzea eskatzen zuten. Enpresa potolo guztiak batu ziren protestetara. Azterketak atzeratu zituzten, eta ez zituen gainditu. Ikasketak uztea erabaki zuen.

9. Lehen Hezkuntzako irakasle moduan lanean

- **Erref:** DON-203/010
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:36:58. **Bukatu:** 00:42:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

1968ko maiatzeko borroken ondorioz, ordezeko irakasle asko sartu ziren hezkuntzan. LHko irakasle moduan ibili zen lanean, hiru urtean, ikastetxe publikoetan. Gogorra egin zitzaion: 6-7 urteko 34 umerekin hasi zen. Magisteritza eskolatik pedagogia berezia zuen eskola bat bisitatu zuten, eta, harekin liluratuta, Freinet sistema ikasten eta aplikatzen hasi zen.

10. Umetatik Euskal etxera joaten ziren

- **Erref:** DON-203/014
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:52:43. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

10-11 urte zituela, Parisko Euskal Etxera joaten hasi ziren. Dantza zen bere pasioetako bat. Aitak kantuan jarraitu zuen, eta giro artistikoa zuten etxean. Etxe txikia izan arren, pianoa zuten. Euskal Etxean ere kantatzen zuen aitak. Etxetik urruti zegoen, eta metroan joaten ziren hiru ahizpak. Euskal dantzak ikasten hasi zen eta 18 urterekin abesbatzan ere bai. Euskal Etxeko gurasoek euskaraz hitz egiten zuten.

11. Parisen "les basques" eta Uztaritzen "parisien"

- **Erref:** DON-203/015
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

"Les basques" ziren auzoan, Euskal Etxera joaten ziren, aita errefuxiatu politikoa zen, Uztaritzera joaten ziren udaro, euskal kantak zekizkien... Uztaritzen "paristarrak" ziren. Euskara ez jakiteak min ematen zion.

12. Euskara ikastera Gipuzkoara

- **Erref:** DON-203/016
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Patxi Altunak antolatutako euskara ikastaro batera joan zen, Urretxura, 1969an. Paristik hiru ahizpak joan ziren. 1970eko eta 1971ko udatan ere euskara ikasten egon zen.

13. "Euskara jakitea gauza handia da"

- **Erref:** DON-203/017
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:06:20. **Bukatu:** 01:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Hego Euskal Herritik jendea Parisko euskal Etxera joaten hasi zenean haiek euskaraz hitz egiten zutenez, beraiei ere ikasteko nahia piztu zitzaien. Bizitzan egin dituen bi gauza handienak bere semea eta euskara ikastea izan dira. Euskara ez da ikasteko hizkuntza erraza. Gaztelania kalean ikasi zuen.

14. Euskal Etxean ezagututako mutil batengatik etorri zen Donostiara

- **Erref:** DON-203/018
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:08:32. **Bukatu:** 01:12:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Euskal Herritik hainbat seminarista gazte joan ziren Pariseko Euskal Etxera, gero ez zirenak apaiztu. Donato zen horietako bat: 1969an bueltatu zen, baina harremanarekin jarraitu zuten. 1970eko gabonetan oporretan Miren etorri zen, eta gero Donostiako Lizeo frantsesean irakasle hasteko aukera izan zuen. 1971tik Donostian bizi da.

15. Feminismoan nola hasi zen

- **Erref:** DON-203/020
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:12:27. **Bukatu:** 01:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Frantzian pilula hartzea eta planifikazio-familiarrera joateko aukera zegoen. 1967an Simone de Beauvoir irakurri zuen. Ama feminista zen, nahiz eta ez hitz hori erabili. Txoke handia izan zen Euskal Herrira etortzea. Donato senarraren lagunak ziren bere lagunak.

16. Lizeo frantsesaren gainbehera

- **Erref:** DON-203/021
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:14:38. **Bukatu:** 01:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lizeo frantsesean hasi zenean 800 haur zituzten. Gero, 200. Itxieraren zergatiak kontatzen ditu. Lizeoan izan zituen arazoak feminista izateagatik eta semea beste ikastetxe batera bidali zuelako.

17. Feminismoa: hartzaindegirik ez zegoen garaia

- **Erref:** DON-203/022
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:18:11. **Bukatu:** 01:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismoan nola hasi zen. 1974an, semea jaio zenean, Donostian ez zegoen hartzaindegirik, eta Donatoren bidez ezagututako Karmelek esan zion pisu batean hartzaindegia ipini zutela. Gero Amaran zabaldu zuten Landetxe hartzaindegia. 1976ko apirilean joan zen emakumeen lehen asanbladara. 1982ko uztailan utzi zuen militantzia.

18. EEB taldea: Euskal Emakumeak Borrokan

- **Erref:** DON-203/023
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 01:21:38. **Bukatu:** 01:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1976an EEB Euskal Emakumeak Borrokan taldea sortu zuten. "Las borrokas". Lehenagotik Autonomak taldekoak zeuden. Asanbladak zeuden, eta taldeak eta batzordeak. 'Koedukazioa komisioa' batzordean egiten zutena azaltzen du: matxismoa aztertzen zuten, hainbat alorretan. Mariasun Landak, Itziar Urtasunek eta Inaxi Lazkanok Zeruko Argiarako idazten zuen, EEBtik.

19. 1977ko Leioako jardunaldiak eta UEUko ikastaro feministak

- **Erref:** DON-203/024
- **Iraupena:** 0:06:16. **Hasi:** 01:26:40. **Bukatu:** 01:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Koedukazioko komisioan zeudela, 1977ko abenduan, Leioan antolatu ziren 1. jardunaldietarako ponentzia bat idatzi zuten. 1978an apartatu zen. UEUn D mailako titulua prestatzen ere ari zen, garai hartan, eta gauetan bertso-saioak zeuden. Bertsoak oso matxistak ziren. Horregatik, zuzendariarengana jo zuten eta 1978an UEUn bi asteko seminario feministak antolatzeko aukera izan zuten, Iruñean. Arrakasta handia izan zuen.

20. "Sexualitatea eta abortua" batzordea

- **Erref:** DON-203/027
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:34:18. **Bukatu:** 01:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1978ko irailean Donostiako Zinemaldian emakumeen zikloa antolatu zuten. "Sexualidad y aborto" komisioa sortu zuten, 1979an; 1981 arte iraun zuen. Militantzia bikoitzaren eztabaida zegoen orduan, baina indarra galtzen joan zen. LKI eta LMK. Bi emakume hil ziren Donostian. Askotan joan zen emakumeak Baionara eramatera, abortatzera. Planifikazio-familiarra antolatzen ere ibili ziren.

21. Zorroagako jardunaldiak

- **Erref:** DON-203/028
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:38:16. **Bukatu:** 01:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1979ko abenduan Granadako jardunaldi feministak izan ziren, estatu mailakoak. emakume independenteen taldea sortu zuten, eta Zorroagan estatu mailako 2. topaketak antolatu zituzten. Horraino iritsi zen bere militantzia. Asanbladak han eta hemen, taldeak, batzordeak... lan handia zen.

22. Donostiako feminismoaren hastapenei buruzko liburua

- **Erref:** DON-203/029
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:40:12. **Bukatu:** 01:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

"Crónica de los primeros años del movimiento feminista en Donostia (1976-1982)" izeneko liburua idatzi du Begoña Gorosperekin eta Carmen Diezekin batera. Berak bilera guztietako apunteak zituen gordeta, eta hori erabili dute oinarri moduan, eta azterketa-lan handia egin dute.

23. Donostiako eta Gipuzkoako talde feministak

- **Erref:** DON-203/030
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 01:42:43. **Bukatu:** 01:46:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Donostiako garai bateko talde feministak. Dibortzioaren batzordea ere izan zen, eta bertan zeudenak Abortoaren batzordean ere bazeuden... Mariasun Landak erraztasuna zuen idazteko, eta testuak idazten zituen. Asanblada unitarioa zegoen Donostian eta Gipuzkoako Asanbladan biltzen ziern hilean behin. Euskadi Asanblada egin zuten behin, Gasteizen, eta hiru ahizpak elkartu ziren bertan.

24. Feminismoa ez zegoen modan

- **Erref:** DON-203/031
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:46:53. **Bukatu:** 01:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismoa ez zegoen modan. Udaletxe azpian, orain liburutegia dagoen tokian, abortoari buruzko lehenengo mahaingurua egin zuten, eta Miren izan zen moderatzailea. Arazoa izan zuen Lizeoko zuzendariarekin, horregatik. 2019ko martxoaren 8ko manifestazioa ikusi zutenean, negar egin zuen sinestu ezinik: "Hauek jakingo dute ze zaila izan zen guretzat?".

25. Bizkaiko 11 emakumeen epaiketa

- **Erref:** DON-203/032
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:50:35. **Bukatu:** 01:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Bizkaian abortatzeagatik epaitu zituzten 11 emakumeen auzia aipatzen du. Eliza bat okupatu zuten, protesta moduan, baina batez ere Bilbon izan zen manifestazioak. 23-F ere gogoratzen du, susto handia izan zena. Sofa azpia

kartel feministaz beteta zeukan eta abortatzera eramaten zituzten emakumeen zerrendekin... ezkutatu egin zituen.

26. Harremana iparraldekoekin; bilera-tokiak

- **Erref:** DON-203/033
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 01:54:30. **Bukatu:** 01:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

"Nik ere abortatu dut" sinadura-bilketa izan zen 1971n, Frantzian. Urte horietako Le Monde egunkariko feminismoari buruzko artikuluak gordeta zituen. Baionako feministekin ere harremana zuen. Uztaritzen ere egon ziren. Bordeleko talde bat ere etortzen zen Donostiara, oso berezia. Ez zuten lokalik. Non biltzen ziren azaltzen du.

27. Emakumeak abortatzera Baionara, Ingalaterrara eta Herbeheretara

- **Erref:** DON-203/035
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:59:49. **Bukatu:** 02:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1979tik Baionara joaten ziren, aboratzeko beharra zuten emakumeekin, baina dirua zutenak Ingalaterrara eta Herbeheretara joaten ziren. Baionan zortzi aстера bitarteko haurdunaldiak eteten zituzten.

28. Aborto legea eta dibortzio legea

- **Erref:** DON-203/036
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 02:01:42. **Bukatu:** 02:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Abortoaren legea 1985ean, eta dibortzioarena 1981ean. 1978ean apartatu zen (paper bat egin zuten), baina ezin ziren dibortziatu. Bere lagun taldean lehenengotakoa izan zen dibortziatzen.

29. Leioako jardunaldi feministak, 1977an

- **Erref:** DON-203/038
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 02:07:19. **Bukatu:** 02:10:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1977ko jardunaldi feministetan, 3.000 emakume elkartu ziren. "Zutik emakumeak" abestiaren itzupena nork egin zuen ez da. Asanblada unitarioa egitea erabaki zuten. Bigarren olatuaren bukaera bezala ikusten du 80ko hamarkadaren hasiera. Plazandreok sortu zen gerora, 1995ean (Juana Aranguren sortzailea aipatzen du).

30. Feminismoaren olatuak

- **Erref:** DON-203/039
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 02:10:46. **Bukatu:** 02:12:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismoaren olatuak zeintzuk diren. 1979an Frantzian jaisten ari zen mugimendu feminista, baina Hego Euskal Herrian beranduago hasi zen eta makalaldia geroago etorri zen. Ko-edukazioko eta abortoko batzordeekin herri herri joaten ziren hitzaldiak ematera. Sexuari buruzko jardueretan ere hartu zuen parte, Gasteizen. Lesbienen batzordea ere bazegoen.

31. Leioako jardunaldiak eta orduko batzordeetako gaiak

- **Erref:** DON-203/040
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 02:12:58. **Bukatu:** 02:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Leioako jardunaldietan jorratutako gaiak aipaten ditu. Auto-ezagutza ere lantzen zuten. Bilera asko bere etxean egiten zituzten.

32. Zaletasunen artean, mendia

- **Erref:** DON-203/043
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 02:18:24. **Bukatu:** 02:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mestia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendizale amorratua da eta bidaiazalea. Dantza, kantua, hizkuntzak, irakurtzea, artea, zinea... gustatzen zaizkio eta mendia. Dibortziatu zenean hasi zen mendian. Umetan udalekuetara joaten zen, eta Uztaritzera.

33. Mendizale amorratua: Himalaia

- **Erref:** DON-203/046
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 02:26:16. **Bukatu:** 02:29:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Tolosa (Frantzia) lagun batek bultzatuta, trekking-ak egiten hasi zen. Himalaian zazpi aldiz egon da. Bloga ere badauka. Alpeetara ere asko joan da.

34. Literatur taldeak gidatzen

- **Erref:** DON-203/047
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 02:29:41. **Bukatu:** 02:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Bi literatur talde gidatzen ditu, frantsesezko liburuei buruzkoak: bat lagunartekoa eta bestea Donostia Kulturakoa. Donejakue bidea egin zuen, erretiroa hartu zuenean; Larry ezagutu zuen han, bere bikotekidea dena, eta hark 'book club' bat zeukan Bostonen. Donostian ere martxan jartzea erabaki zuen Mirenek. 10-12 urte daramatzate hilero biltzen.

35. Literatur taldeak gidatzen II

- **Erref:** DON-203/049
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 02:35:08. **Bukatu:** 02:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Duela 5 urte Donostia Kulturako literatur solasaldiak gidatzen hasi zen, frantsesez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com